



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNUA SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN,
NAFARROAKO GOBERNUAREN HERRITARREKIKO HARREMANETAKO
DEPARTAMENTUAREN, ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA EUSKARAREN SUSTAPENARI BURUZKOA, 2021-2025
EPELDIARAKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA

I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza-Politika Sailak eskaera bidali dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, 2021eko ekainaren 6ko datarekin, erreferentziatzeko Hitzarmen proiektuari buruzko nahitaezko LEGEZKOTASUN TXOSTENAREN egin dezan, eskaerak hurrengo dokumentazioa eransten duelarik:

- Hitzarmen Testua
- Kultura eta Hizkuntza-Politikako Sailburuak jaulkitako memoria
- Departamentuko txosten juridikoa
- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseiluari zuzendutako akordio proposamena

Txosten hau oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) atalean, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 14.1.a) eta 15.1.a) artikuluetan.

Era berean, posible da seinalatzea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b artikulua ezartzen duenaren arabera Eusko Jaurlaritzaren

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokiola egin beharreko txosten juridikoa egitea, Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektuak, erregelamenduz zehaztutako kasuetan.

Horren erregelamenduzko garapena, izatez, 144/2017 Dekretuaren bidez egin zen, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena, 2017ko maiatzaren 4an indarrean sartu zena, eta honen 13 artikuluan legezkotasun-txostenaren nahitaezkotasuna arautzen du, bai eta txostena eskatzen duen sailak bere txostena eman behar duela, eskaerarekin espediente osoa bidali behar baitu.

II. LEGEZKOTASUNA

1.- Xedea

Aztertutako zirriborroaren aurrekariak behar bezala erakusten dute hiru partaide sinatzaileen artean jardun-eremu bateratu bat ezartzeko beharra arautzen duen azken xedea.

2017ko uztailaren 3an sinatu zen, Iruñean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkunta Politika Sailaren, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren, eta Euskara Erakunde Publikoaren arteko lehenengo Lankidetzak Hitzarmena. Hitzarmenak 2017. urtetik 2021. urtera bitartean izan du indarraldia.

Partaidetza honen balantze positiboa egin ondoren eta interes estrategikoa kontuan hartuta, hiru partaideek hitzarmena berriztea adostu dute, 2021-2025 bitarteko.

Hitzarmenaren xedea hiru sinatzaileen arteko lankidetzak bultzatzea da euskararen sustapenari dagozkion alderdi jakin batzuetan. Erakunde bakoitzak hitzarmenean bildutako programak egin edo garatuko ditu, nork bere ahal ekonomikoen heinean.

2.- Konpetentzia

Euskal Herriko Autonomia Estatuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6.5 artikuluan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du beste euskal lurralde eta gizataldeen baitan euskara zaindu eta bultzateko, bai eta lurralde horietan kokaturik dauden erakundeekin –Estatu barruko zein kanpoko erakundeak direlarik ere- harremanak bidaeratzeko hitzarmenak egiteko.

Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera, hitzarmena sinatuko duten partaideak Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoa direla kontutan harturik, egokia da gogoratzea, Gobernuari buruzko 7/1981 Legearen 18.artikuluaren e) letrak ezartzen duen bezala, derrigorrezkoa dela Eusko Legebiltzarrari komunikazioa egitea. Bai eta, halaber, Gorte Orokorrei ere, Euskadiko Autonomia Estatuaren 22.1 artikuluan eta Espainiako Konstituzioaren 145.2 artikuluan arabera.

Desiragarria litzateke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseiluari zuzendutako akordio proposamenean aurreikuspen horiek jasotzea, aurreko akordioa egin zenean bidalitako proposamenean egin zen bezala.

3.- Izaera juridikoa eta edukia

Partaide sinatzaileen arteko lankidetzaz-oinarrien edukia lankidetzaz-hitzarmen izenarekin aurkezten da.

Gure ordenamendu juridikoan, hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa legeztatzen duen urriaren 1eko 40/2015 legean arautu dira, hain zuzen ere, atariko tituluaren 47.etik 53.era bitarteko artikuluetan.

Jada hitzarmenaren edikiari adituz, sailaren txostenak dioenez, zalantzak daude lankidetzaz-hitzarmen gisa kalifikatu daitekeenik honako hau, eta ez protokolo huts bezala, eta ondorio horrekin bat gatoz erabat.

Euskararen inguruan lankidetzazko sustatzeko borondatea izan arren, ez da zehazki eska daitezkeen inolako konpromiso juridikorik hartzen norabide horretan, aurkeztu zaigun testuan. Era berean, zirriborroak ez du betetzen gure ustez hitzarmen kalifikazio hori izateko 40/2015 Legearen 49. artikuluan adierazitako gutxieneko edukia, ez baititu espresuki jasotzen alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu aplikatu daitezkeen ondorioak.

Hala ere, dagoen bezala protokolo gisa onartuta izan dadin trazarik ez dagoen arren, hitzarmen gisa onartu nahi bada, komenigarria litzateke ondorio horiek testuan jasotzea, bestela proiektatutako testuaren izaera juridikoa indargabetuta geratuko litzateke, nahi den hitzarmenetik aldentuz, hitzarmenak konpromiso zehatz eta galdagarri batzuk adosteko formalizatzen baitira, halaberrez.

Lankidetzazko hitzarmenaren edukia dagokionez, testuak aurrekoaren egitura berbera jarraitzen du: zioen adierazpen bat, lau klausula eta azken xedapen bat, non hiru erakundeek elkarlanean garatuko dituzten agintasmok zehazten diren.

Azken xedapen horren arabera, hiru sinatzaileen adostasunarekin lankidetzarako hitzarmena alda daiteke, horretarako erantsen omen den eranskina erabiliz. Eranskin hori, hala ere, ez da aurkeztu zaigun espedientean erantsi. Beraz, eranskina gehitu beharko litzateke edo, bestela, hitzarmenaren testuan prozedura zehatz bat finkatu hitzarmena aldatzeko.

Oroitzak egin diren aldaketak zehaztasunez azaldu ditu eta, saileko aholkularitzaren txostenak aitortzen duenez, aldaketa horiek ez dute funts handirik. Bat geroz erabat Sailaren aholkularitzaren txostenak adierazitako ondorio horrekin, eta, hemendik aurrera, gure txostenak jasotzen ez duen guztiari lotzen gatazka.

Administrazio honentzat sortu daitezkeen izaera ekonomikoko eginbeharrei dagokionez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren beharrezko aurretiazko txostena gogoratu behar da.

Hau da ematen dudana txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein iritziren mende jartzen dudalarik, Gasteizen, 2021eko ekainaren 18an.